



TXANTXIKU IKASTOLA

a l b i s t e b u l e t i n a

2016ko irailaren 16a

1. zenb

GOIZEKO HARRERA ZERBITZUKO SARRERA

Zalantza batzuk argitze aldera, hemen doakizue goizeko harrera zerbitzura sartzeko erabili beharreko sarbideen inguruko argibide batzuk.

- Goizeko zortziak bitartean (07:30-08:00) **patioko atetik egingo dira sarrera guztiak**. Bertatik, 0 urteko guneko sarrerako atea erabili beharko dute 0, 1, 2 eta 3 urteko haurrek.

- Hortik aurrera (08:00-08:45) 0 eta 1 urtekoek 0 urte guneko sarrera erabiliko dute. Eta 2 eta 3 urtekoek, aldiz, 2 urtekoen guneko sarreratik izango dute sarbidea.

Gainontzeko taldeek, 4 urtetik Lehen Hezkuntzako 2. maila artekoek, patioko atea erabiliko dute aretora sartzeko.



JAIKETAKO ZAINTZA ZERBITZURAKO IZEN-EMATEA



HAUR HEZKUNTZAKO 2 URTETIK LEHEN HEZKUNTZAKO 2. MAILA BITARTEKO IKASLEENTZAT

Gogoratu datorren irailaren 28ko (arratsaldea) eta urriaren 4ko (egun osoa) EGUN EZ LEKTIBOETAKO ZAINTZA ZERBITZUAN izena emateko epea datorren irailaren 20an (berau barne) amaituko dela.

IZENA EMATEA

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK



Txantxiku Ikastolak 2016-2017 ikasturtean eskainiko dituen **ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN** izena emateko epea datorren astean irekiko da.

EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA

Bihartik hasita, irailaren 22a arte Europako Mugikortasun Astea ospatuko da. Ekimenarekin bat eginik, geure herrian ekintza ezberdinak egingo dira. **Hemen duzue EGITARAUA** ikusteko aukera.



ERRONKA

Bigarren Hezkuntzako gure zenbait ikaslek, urteroko ohitura jarraituz, Bergarako Kilometrotako Erronkan parte hartuko dute. Frogetako bat aurkezpen bideoa sortzea izan da eta **HEMEN** duzue ikusgai emaitza!

Beraien lana bukatu dute eta orain geure laguntza ere behar dute. Sartu eta bozkatu... Lehen aldia bada, izena eman behar da; 2 minutuko zeregin laburra.

Ikasleei geure animorik beroenak emateko bidea izan daiteke. Animatu eta bozkatu Txantxiku ikastolako ikasleen lana!



BADATOR DANBORRADA TXANTXIKU IKASTOLARA

Dakizuen ez datorren asteko zapatuan, irailaren 24an, Oñatiko jaiak direla eta haurren danborrada izango da herriko kaleetan zehar. Urtero bezala, bezperan, irailaren 23an, danborrada antolatu dugu goizeko 11:00ak aldera. Aurten ere, plazara joango gara eta bertan Haur Hezkuntzako 3, 4 eta 5 urteko ikasleek eta Lehen Hezkuntzako 1.mailakoek parte hartuko dute. Honetarako, HAUR HEZKUNTZAKO HAUR BAKOITZAK danborlari gorruea edo txanoa gelan prestatuko du, baina DESFILERAKO DANBORRA ETXETIK EKARRI BEHARKO DU. Lerro hauen bitartez gonbidatzen zaituztegu zuek ere, hala nahi izanez gero, ikusle gisa ekintza honetan parte hartzera.



IKASLE ESLOVAKIARREKIN ELKARTRUKEA



Irailaren 11n Kosice hiriko 30 ikasle etorri ziren Oñatira Txantxiku Ikastolako batxilergoko 1.mailako ikasleekin elkartrukea egiteko. 2004an martxan jarritako ekimena da hau eta bi urtez behin burutzen dugu gure ikastolan.

Oñatiar ikasleen etxeetan ari dira astea pasatzen eta ekintzaz beteriko izan dute aurretik: Gasteiz, Bilbo edo Donostiako hiriburuak ezagutzeaz gain, Urbiara igo dira, herri kiroletan aritzeko aukera izan dute eta gure Ikastolako proiektu berriak ezagutu dituzte. Gaur gauean Gaztelekuan agur festa ospatuko dute ikasle eslovakiarrak eta oñatiarrak elkarrekin.



GURASO BILERAK

Bilerak zuen seme/alaben geletan izango dira arratsaldeko 18:00etan

19 astelehena	Lehen Hezkuntza 6. maila Batxilergoa 2.maila
20 martitzena	Lehen Hezkuntza 2. maila Batxilergoa 1.maila
21 eguaztena	DBH 3.maila